

eta herritarren izendegia osatzea eta ahal dela finkatzea. Herri izendegi ofizial baten premia gorrian gaude, eta horren faltaz nahaspila handia ikusten da gure aldizkarietan. Sail berezi honek dituen katramila eta problematika azaldu du, eta orain arte eginak diren lanen berri eman ere bai. Azkonik, barruti hontarako egokitu dedin, idatz arauetazko Batzordea eraberritu egin behar zela esan du, eta batzorde berrituaren izenak agertu ditu. Luis Mitxelena jauna izango da buru eta Jose Luis Lizundia idazkari. Hortaz gainera eskualde bakoitzetik bokalak eta kontseilariak hautatu dira: S. Garmendia, Ruiz Urrestarazu, J. M. Satrustegi, eta Jean Haritschelhar. Eskualdetako arduradunak: Bidazoaz-handik, Dassance eta G. Eppherre; Arabatik, G. López de Gereñu eta O. Apraiz; Bizkaitik, L. Akesolo eta L. Villasante; Gipuzkoatik, Y. Etxaide eta J. San Martin; Nafarroatik, A. Irigaray eta Basilio Sarobe; eta Errioja aldekoa, J. J. B. Merino Urrutia.

J. M. Satrustegi jaunak, gai honi buruz Nafarroako partean Institución "Principe de Viana" egiten ari denaren berri eman du. Hain zuzen, guk proposatzen dugun lanerako hain ongi etorriko dena.

e) *Txomin Peillenen txostena*, "Kirio" eta "Soin" hitzei buruz: Olabideren *Giza-Soiña* (1917) liburuan *Kirio* eta *Soin* hitzak gaizki adieraziak direla, aditzera ematen du, eta heren xehetasunak agerrerazi; lehen, *Kirio*, *médula de hueso* eta *tuétano* adierazteko dela, eta ez *nervio*; *Soin* hitzarekin berdin egiten duela, ideiak itzultzerakoan, ideia hauek alderantziz. Baina lehenago *Soin*-ekin egin zuen bezala agertu behar duela Euskaltzaindiak *Kirio-ren* egiazko esan nahia; eta era berean aditzera ematen du, "*vaso sanguíneo*", *Odol zain* eta "*nervio*", *Zain* esanenezkeala.

f) *Filatelia hiztegiak*: Aramaioko batzarrera X. Gereño jaunak egin zuen eskariari buruz mintzatu da. Filatelia izenak finkatzeko batzorde bat izendatu, alegia. Hauxe erabaki zen: X. Gereño jaunak berak, gauza hortan jakitun direnen kontseiluaz, osa dezala izendegi hau, eta hori egindakoa bere lana Euskaltzaindira ekar dezako, hemen azken eskua eta baietza emateko.

g) *Bakoitzak dakarrena*: Arrue jaunak gogorazten du diru-laguntza eskeak berritu beharra. Diputazioeri memoria batekin batean agertuko zaizkie.

Satrustegi jaunak dio, Fagoaga zenaren Gramatika bat utzi zuela Euskaltzaindiaren burugoa, eta eskuratu nahi luke argitara eman ahal izateko. Baita ere, *Fontes*-en edo edizio berezi batean Elkanoko Lizarragaren lan argitara gabeak publikatzeko asmoz direla. Berri hau pozik entzun da.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1971-XI-26

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1971ko azaroaren 26an, arratsaldeko lauretan. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buru-ordetzko, Arrue, Diharce, Irigaray, Irigoyen eta Lafitte euskaltzain jaunak;

Altuna, M. F. Arregi, J. Estornés Lasa, S. Garmendia, Intxausti, Kintana, Lizundia, Loidi, Ruiz Urrestarazu, Santamaria, Sarasola, Uribarren eta Zatarain laguntzaile jaunak San Martin idazkari dala.

Ezin etorria adierazi dute: Aita Damaso Intzakoa, Dassance, Eppherre, Erkiaga, Labayen (jaun honek gaineratzen du beretzat gaizki datozela ostiral arratsaldeak, eta gure batzarrek arratsaldetara pasatu ditugunik duela bere etorri ezina), Larzabal eta Zabala jaunak.

Ohi dan oititzarekin hasi da batzarra.

Klaudio Sagartzazu "Satarka" euskaltzain laguntzailearen hil-berria jakinarazi du euskaltzainburuak. Familikoei gure nahigabea agertzea erabaki da.

Urriko batzarreko agiria onhartzean, Zatarain jaunak zenbait xehe-tasun argitzea eskatzen du, aurretiko batzarrean berak egin zuen oharra ere nonbait dirudianez ez zela funtsez konprenitu. Xehetasunok *Ez-*, *Bait-* eta *Ba-* zelan erabiliari buruz erabakiak hartu diren moduz dira, eta argi-bide hauek ematen dira: a) *Ez-* zelan erabili behar den, erantsirik edo berezirik, euskaltzain osoeri ere galdetu zitzaie, batzordeak bere proposamenduak gertatu ondorean eta batzarrean presentatu baino lehen, orri-multikopiatuen bidez, lehen aldiz ekainaren 11garrenean, abuztuko batzarrean lehen aldiz tratatua, eta bertan agertutako zalantzak bide, bigarrenez ere idazkiz galdetu zitzaie euskaltzain guztiei, eta iraileko batzarrean erabakia hartu, beraz bi idazki eta bi batzarren ondorean erabaki zen (bestalde, iraileko batzarreko deian gaietan sartua egoan, eta araudiak dionez, erabakia hartu ahal izateko aski da 5 euskaltzain bilduak egotea, eta irailekoan, erabaki zenean, 9 euskaltzain ziren batzarrean eta euskaltzain guztiak ziren *Ez-* beti berezirik erabiltzearen aldekoak. b) *Bait* eta *Ba-*era berean aditzera eman ziren, baina erabakitzeko utzi zen, hontaz, agiria ongi dion bezala, "botoetara jo da, batzarretik dauden guztien iritzi zenotza jakiteko", beraz, ez erabakia hartze-ko, eta diferentziak hain txikiak direla ikusirik berriz galdetzea erabaki zen idazkiz erantzutea eskatuz, gero batzar batean erabili ahal izateko.

A) HAR-EMANAK:

Literatura saiakera gaitzat zuen sarirako izendatu ziren mahaiburukoak, Haritschelhar, Irigoyen eta Arestik, eman dute beren iritzia, maioriaz, "zaldi burdina" pika daraman lanari lehendabiziko saria, 25.000 pezetakoa. Estalgarria ideki eta Ibon Sarasola Errazkin agertu da *Euskal Literaturaren Historia* izeneko lanaren egile.

Aditz batuaren saria, 75.000 pezetakoa, Hegosak jarria, mahaiburuko diren P. Lafitte, I. Berriatua eta J. L. Alvarez jaunak, aho batez, Krutwig jaunaren lanari ematea erabaki dute. Presentatzen duten txostenak hau dio: "Krutwig jaunak ditu bakarrik bete jarri ziren baldintzak, formak hautatuz, erranez bere hautuen arrazoiak, bere burutik formarik ez asmatuz. Izan dira segur lan eder baliosak aditzari buruz, baina baldintzez kanpokoak. Adibidez Alvarez-ek eta Lafittek uste dute Jean Eppherre-k Zuberoako aditzaz egin duen lanak merezi lukela nunbait agertzea, gutik ezagutzen baitute zoin den berezia eta zabala".

Caracas-ko Euskera Lagunen Elkartearen gutuna, adieraziz aurtengo "Il Andima Ibiñagabeitia" jakintza liburu saria, 1.000 dolarrekoa, Luis Egia Rezola jaunari ematen diotela *Neurritzia* (Geometria) lana gatik;

eta *Accesit*, 290 dolarrekoa, Benantzio Otaegi jaunari Giza jakintza (Antropologia) lanagatik, eta igazko bezala Euskaltzaindiak sariok banatzea nahi dutela. Ontzat hartu da.

Lobainatik (Leuven) Baudewijn MEEUS, Fil. Lic.-ek minoria hizkuntzeri buruzko inkesta egiten ari direla Europa guzian eta euskarari buruzko xehetasunak eskatzen ditu.

Amsterdam-go Ynteruniversitaire Studzjerie Frysk-tik XVI eta XVII-ko guraso hizkuntzari buruzko inkesta.

Belgrado-ko (Beograd-Jugoslavia) Konferencija Nauka i Društvo erakundeak, bertan dituzten "Science and Society" gaiezko hitzaldietara gomita eginaz.

B) HARTU DIREN LIBURUAK:

Lur Editoriak emanak: *Euskal Elerti 69*, egile askoren lanekin hornidutako bilduma; *Mendebaleko ekonomiaren historia*, R. Saizarbitoria, I. Sarasola, A. Urretavizcaya; *Euskal protestantismoa zer zen*, Joannes Leizarraga; *Literatura eta kritika*, P. Urkizu; *Soziologiaren hastapenak*, A. Sagarna; *Afrikar iraultzaren alde*, F. Fanon; *Linguistika orain arte*, X. Kintana; *Euskal Literaturaren Historia*, I. Sarasola; *Euskara Gaur*, *Gaur SCI*; *Lan alokatua eta kapitala*. Alokairua, prezioa eta irabazia, Karl Marx; *Poemagintza*, I. Sarasola; *Argi bat iluntasunean*, X. Gereño; *Hunik arrats artean*, A. Lertxundi; *Haur besoetakoa*, J. Mirande; *Itxura aldaketa*, F. Kafka; *Harrizko herri hau*, G. Aresti; *Lau gartzelak*, N. Nikmet; *Kaniko eta Belxitina*, Jakes Oihenarte; *Bai mundu berria*, Aldous Huxley. Era berean, Editorial Franciscana Aranzazu-k, Joxe Azurmendiren *Hitz berdeak*; eta Ziburuko Euskal Elkargoak J. Azurmendiren *Hizkuntza, etnia eta marxismoa*.

Iraskasle Elkartek, *Ikastola-hiztegia* delako liburuxka bialtzen digu, gure oharrak nahi dituztela adieraziz. Euskaltzaindiak bere jakintza hiztegiak atera bitartean, Irakasle Elkartek egin duen hiztegi hau erabil ditekela erabakitzen du.

D) DIRU KONTU GORA-BEHERAK:

Idazkari ordezekoak irakurri ditu diru kontu gora-beherak, Erkiaga diruzainaren etorri ezina adierazi ondorean. 1971ko uztaila-iraila bitartekoa: lehenik egoana, guztiz, 16.957,98; gehitua, 208.364,68; urritua, 99.072,00; dagoana 126.250,66 *pezeta*. Sarreren eta urrituen zertzeladarik aipagarrienak irakurriaz.

E) "BAIT eta "BA"-ren IDAZKERAZ:

Bait eta *Ba*- zelan erabiliri buruz beren iritzia izkribuz erantzunez eman duten euskaltzainak: Dassance, Diharce, Erkiaga, Haritschelhar, A. Damaso Intzako, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Lekuona, Lojendio, Mitxelena, San Martin, Satrustegi, Villasante eta Zabala jaunak. Beraz, 24 euskaltzainetik 15ek erantzun dute. Beretatik, *Bait*- beti loturik erabiltzearen alde 8, eta beti aditzetik bereizturik erabiltzearen alde 7. *Ba*- beti loturik erabiltzearen alde 11, batek beti bereiztearen alde, beste batek idazleak behartu gabe bakoitza bere gisara idaztearen alde.

Iritziok ikusirik, *Ba-* beti aditzari loturik idatziko da. *Bait-* aurrizkiaren idazkera oraingoz erabaki gabe gelditzen da, eta libre izango da nahiz loturik nahiz aparte idaztea.

F) IRAKASLE KARNETAK:

A. Altunaren txostena irakurtzen du Kintanak, Euskal irakasle karnetaren jabe izateko eskatu beharko diren jakingarriak aztertuz. Txosten hau lehenago Kintana berak Aita Altunak aurkeztutako lanetatik osatua da. Batzarrak ontzat eman du bereziki gertatu duten plan hau.

G) BAKOITZAK DAKARRENETIK

Irigoyenek dio, J. Berrojalbizekin mintzatu dala "Azkue" izeneko ikastoleri buruz. Irakaskintzako lege berriak eskatzen duen araua bete ahal izateko gurasoak kooperatiba bezala bildu direla Lauron ikastetxe berri bat egiteko. Estadutik hamar milloi pezeta lortu dituzte, bat berriz igortzeko eta bederatzi "a fondo perdido" esan ohi dan erara. Eman dioten baimenean bi hizkuntzak neurri berdinez ematea onhartzen dela.

S. Garmendiak bere kargua utzi nahia agertzen du, urte beterako hartu zuelako. Oraingoz jarraitzea eskatzen zaio.

Haritschelharrek Eppherre euskaltzain jaun kalonjea gaixorik dala agertzen digu. Bestalde Frantziako telebistak eskuarazko emisionea muntatu duela, hilean oren erdiz. Oso pozik entzun da hau eta Espainiakoari ere eskaria egitea erabakitzen da.

Zabalak, bere ezinetorria agerreraziz, urrengo batzarrerako bertsolari txapelketari buruzko berriak urrengo batzarrera ekarriko dituela.

Irigaray jaunak txostenez agertzen du ortografiarekikoa mailaz maila eramateko Arantzazuko agiriaren oinharritz, helburua geroagoko epe batean jarriaz. Baina, azken ohar eta erabakiak EUSKERA aldizkarian laster argitaratuko diranez, oraingoz ez dala garai egokia ezeri ikutzeko eta hobe dala gehiago itxaro.

Beste gabe, ohi dan otoiizarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua

LUIS VILLASANTE

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1971-XII-30

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1971ko abenduaren 30ean, arratsaldeko lau terdietan, Bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buru-ordezko, Arrue, Erkiaga, Irigoyen, Lafitte, Lojendio, Mitxelena eta Zabala euskaltzainak; Akesolo, Altuna, Berrondo, J. Estornés Lasa, S. Garmendia, Intxausti, Kintana, J. M. Lekuona, Lizundia, Loidi, Santamaria, Sarasola, P. Uribarren, Ruiz Urrestarazu eta Zatarain euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Ezin etorria adierazi dute: Dassance, Diharce, Eppherre, Irigaray, Larzabal eta M. Lekuonak.

Ohi dan otoiizarekin hasi da batzarra.